

EUSKADIKO ZAHARTZE AKTIBOAREN INDIZEA 2020

ACTIVE AGEING INDEX (AAI)
2020

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

EUSKADIKO ZAHARTZE AKTIBOAREN INDIZEA 2020

ACTIVE AGEING INDEX (AAI) 2020

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAIALA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTIZIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Vitoria-Gasteiz, 2022

Argitaraldia:

1.a, 2022ko iraila

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politikak

Internet:

www.euskadi.eus

Egilea:

Matia Institutuak egina:
Sara Marsillas.
Elena del Barrio (Kordinazioa)

Landa lana:

Demométrica

Diseinua eta Maketazioa :

Komunikazio Zuzendaritza
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politikak

Edukia

Aurkezpena	7
Zahartze Aktiboaren Indizea	9
Metodologia	13
Informazio iturriak	13
Kalkulatzeko metodoa	14
Helburuak	17
Emaitzak	19
AAIa Euskadin	19
Indize orokorra	19
Enplegua	21
Gizartean parte hartzea	22
Bizimodu independente, osasuntsu eta segurua	25
Zahartze aktiborako gaitasuna eta ingurune lagungarria	28
Genero arrakala	31
AAIa lurraldeka	36
Indize orokorra	36
Enplegua	36
Gizartean parte hartzea	37
Bizimodu independente, osasuntsu eta segurua	38
Zahartze aktiborako gaitasuna eta ingurune lagungarria	39

AAIa Euskadin 2014-2020	40
Indize orokorra	40
Enplegua	42
Gizartean parte hartzea	44
Bizimodu independente, osasuntsu eta segurua	47
Zahartze aktiborako gaitasuna eta ingurune lagungarria	50
Ondorioak	53
Erreferentziak	57

Aurkezpena

Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen bizi baldintzei buruzko inkesta espezifiko bat egiteak aukera ematen dio Eusko Jaurlaritzari lurralde honetako adinekoen bizimoduari buruzko aurreko azterlanei jarraipena emateko. Aurreko azterlanak lagungarriak izan dira lurraldeko zahartze prozesuaren berezitasunetara egokitutako planak, proposamenak eta estrategiak lantzeko. Azterlan horietan lehena 1993ko Adinekoen Inkesta izan zen, eta 1994an Gerontologia Plana egiteko balio izan zuen. Bigarren azterlana 2010eko EAEko Adinekoen Bizi Baldintzei buruzko Inkesta izan zen, eta, hartan oinarrituta, «Zahartzen ari direnen ongizatean eta tratu onean aurrera egiteko ehun proposamen. Ekintza plan baterako oinarriak» dokumentua landu zen 2011n. Ezaugarri berak dituen azken azterlana 2014an egin zen, eta 2015-2020ko Zahartze Aktiborako Euskal Estrategia abiarazteko oinarriak jarri zituen.

2020an egindako azterlana inkestaren hirugarren edizioa da, eta pertsona horien errealitatea ezagutzea ez ezik, etorkizuneko joerak eta premiak aztertzea ere ahalbidetzen du. Ezagutza hori lagungarria da Euskadin zahartze prozesuaren inguruko iraganeko politika publikoak ebaluatzeko eta etorkizunekoak diseinatzeko.

Azterlan honen emaitza *gaikako txosten sorta bat* da, zeinetan zehatz-mehatz aztertzen diren Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen egungo egoera eta bilakaera, hainbat arlotan (gizarte sarea, osasuna, zaintzak, parte-hartzea eta abar). Txosten sorta horretatik, ale honetan **2020ko Zahartze Aktiboaren Indizearen emaitzak** aztertuko ditugu.

Hauxe da txostenetan landutako gaien zerrenda:

- Mendekotasuna eta zaintzak
- Bakardadea eta gizarte sarea
- Etxebizitza, ingurunea eta lagunkoitasuna
- Jarduera, parte-hartzea eta erretiroa
- COVID-19ak eguneroko bizitzan duen inpaktua
- Pertzepzioak eta estereotipoak

Zahartze Aktiboaren Indizea


Zahartze Aktiboaren Indizeak (Active Ageing Index, AAI) Europako Batzordearen Enplegu, Gizarte Gai eta Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusiak eta Nazio Batuen Europarako Batzorde Ekonomikoak (UNECEk) elkarrekin kudeatutako ikerketa proiektu batean du jatorria. Tresna horren bidez, politika publikoak egiteko ardura dutenei informazioa ematen zaie, adinekoek ekonomian eta gizartean eskain dezaketen laguntzaren aprobetxamenduari edo erabilerari buruz. Lurralde jakin batean inguruneak zahartze aktiboa zenbateraino errazten duen jakiteko datuak ere ematen ditu. Horrela, ebidentzia kuantitatiboan oinarritutako informazioa dakar, eta, hori aztertuta, esku-hartzeak egin, estrategiak diseinatu eta erabakiak hartu daitezke. Hasiera batean, 2012an, Europar Batasuna (EB) osatzen duten herrialdeetarako kalkulatu zen indizea. Ondoren, hedatu eta egokitu egin zen, Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetan nahiz eskualde mailan eta maila lokalean ere aplikatzeko, NUTS-2 eta NUTS-3 barne (UNECE/Europako Batzordea, 2015; UNECE/Europako Batzordea, 2019).

AAIa garatzeko, zahartze aktiboaren kontzeptu zabal bat erabili zen, adinekoek lan merkatuan duten parte-hartzea ez ezik, gizarteari egiten dioten ekarpen ordaindu gabea ere kontuan hartuta. Bi ekarpen mota horiek aintzat hartuta, langile zaharrenek lan merkatuan dituzten aukeretan zer aurrerapen egin diren jakin nahi zen, batetik, eta adinekoek lan merkatutik kanpo egiten dituzten ekarpenak ere detektatu nahi ziren, bestetik, nahiz eta bi kasuetan adinekoen produkzio jarduera bakarrik hartzen den kontuan parte-hartzea aztertzean. Gainera, beste ekarpen modu batzuk ere aintzat hartu ziren, funtsezkoak direlako pertsonak bizimodu osasuntsu, independente eta segurua izan dezaten zahartu ahala; besteak beste, honako hauek: osasun portaerak, arreta medikoa, elementu ekonomikoak, independentzia eta segurtasuna (Zaidi et al., 2013). Zahartze prozesuak neurtzea da planteamendu horren helburua. Lehenengo aldaketa gaitasunen ikuspegia sartzea izan zen eta,

bigarrena, parte-hartzearen dimentsioa aldatzea, produkzio jarduerara bideratuta. Ikuspegi horretatik, sozialki aktiboak diren zahartze prozesuak bultzatzen dira, eta ez bakarrik pertsonalki aktiboak direnak.

AAI indizeak 22 adierazle ditu, 4 eremutan banatuta, eta oinarri duen zahartze aktiboaren kontzeptuaren dimentsio aniztasuna islatzen dute adierazleok. Indize globalak lurralde jakin bateko deskribapen orokorra eskaintzen du, zahartze aktiboari dagokionez; 4 eremuetako puntuazioek eta adierazleek, berriz, informazio zehatzagoa. Lau eremuetatik hiruk lurralde bateko zahartze aktiboaren emaitzak eta esperientziak adierazten dituzte une zehatz baterako, eta laugarrenak zahartze aktiboa eta osasuntsua sustatzeko gaitasuna eta ingurune lagungarriak adierazten ditu. Azken eremu hori Sen-en gaitasunen esparru kontzeptuarekin oinarritzen da. Hauxe da gaitasun horien definizioa: ongizatea eta bizi kalitatea, bizi itxaropena, osasuna, hezkuntza edo parte-hartze soziala hobetzeko aukera eta ahalduntzea (Zaidi et al., 2013). Egile horien arabera, laugarren eremuak pertsonen baliabideak, osasun kapitala eta giza kapitala neurtzen ditu, eta lehen hiru eremuen oinarri gisa hartzen da. Horrela, datu enpirikoak lortzeko prozesua errazteko eta estandarizatzeko tresna bat sortu nahi izan da, datu horietan oinarrituta politika publikoak diseinatzeko, 2 helbururekin: adinekoen ongizatea lortzea eta haiek ekonomiari eta gizarteari ekarpena egin ahal izatea (Echeverría, 2014).

1. irudia. Active Ageing Index.



Iturria: Active Ageing Index proiektua,

<https://statswiki.unecp.org/display/AAI/Active+Ageing+Index+Home>

Bestalde, AAI indizeko adierazleek pertsonen potentzialaren garapen eta aprobetxamendu maila islatzen dute, adierazle gisa hautatutako ekarpen eta esperientzia bakoitzean. Beraz, AAI indizeak 2 informazio mota ematen ditu: batetik, populazio edo talde baten zahartze aktiboaren esperientzia errealak eta egungoak eta, bestetik, lurralde bateko adineko pertsonen potentzial aprobetxatu gabea, zeina gara daitekeen haien bizi kalitatea hobetzeko eta ongizate publikoko sistemak iraunkorragoak izateko (Zaidi et al., 2013). Nolanahi ere, adierazleek emandako informazioa

testuinguruan kokatu behar da, pertsonak zer egoeratan zahartzen ari diren hobeto ulertzeko. Hori bereziki garrantzitsua da; izan ere, adierazle guztiak –eta, beraz, eremukako puntuazioak eta indize orokorra– termino positiboetan definitzen dira, eta haien irakurketa zuhurtziaz egin behar da balio judizioak saihesteko (UNECE/Europako Batzordea, 2019; Zaidi, 2013). Alde horretatik, puntuaziorik handienek adierazten dute adineko pertsonen potentzialaren gauzatze maila eta jarduera maila handiagoak direla. Dena den, horrek ez du esan nahi emaitza horiek hobeak direnik. Behar bezala interpretatzeko, kontuan hartu behar dira lurralde jakin bateko edo denbora tarte jakin bateko inguruabarrak, horien araberakoak izango baitira informazioa aztertuta ateratako ondorioak. Adibide gisa, 65-69 eta 70-74 adin tarteetako enplegu tasari buruzko adierazleak edo zaintza lanekin lotutako adierazleak aipa ditzakegu. Bi kasuetan, balioa handia bada, pertsona horiek ekarpen oso handia egiten diotela gizarteari adieraz dezake, edo, bestela, Estatuak pertsona horiei emandako zaintzak edo erretiroko pentsioak ez direla nahikoak haien beharrak asetzeko, eta, ondorioz, lanean jarraitzea edo zaintzak beren gain hartzea beste erremediorik ez dutela, ez daukatelako behar besteko babesik.

Hala eta guztiz ere, AAI indizeak emandako informazioa baliagarria izan daiteke politika publikoak egiteaz arduratzen diren pertsonentzat; izan ere, lurralde bateko indarren eta ahulezien ikuspegi orokor bat ematen du adierazleen eremu bakoitzerako, bai eta esku-hartzeak ebidentzian oinarrituta egiteko ere. Era berean, politikak ezarri eta esku-hartzeak egin ostean adinekoen jardueraren bilakaera monitorizatzeko ere balio izan dezake.

Metodologia

INFORMAZIO ITURRIAK

Euskadiko 2020ko AAla kalkulatzeko, EAEko inkestak erabili dira datu iturri gisa, inkesta horietan jasotako galderetan oinarritzen diren adierazle guztietarako. Eta adierazleak aipatutako inkestetatik lortzerik egon ez denean, adierazle horien oinarri diren galderak ad hoc inkesta batean sartu dira (55 urteko eta gehiagoko pertsonen bizi baldintzei buruzko inkesta). Jarraian, adierazle bakoitzeko datuen iturria adieraziko dugu.

1. taula. Erabilitako informazio iturriak.

Eremuak eta adierazleak	Iturria
1. eremua: enplegua	
1.1. 55-59 enplegu tasa	Eustat BJA 2019
1.2. 60-64 enplegu tasa	Eustat BJA 2019
1.3. 65-69 enplegu tasa	Eustat BJA 2019
1.4. 70-74 enplegu tasa	Eustat BJA 2019
2. eremua: gizartean parte hartzea	
2.1. Boluntarioria jarduerak	BBI 55+ 2020
2.2. Seme-alabak eta bilobak zaintzea	BBI 55+ 2020
2.3. Gaixoak eta desgaituak zaintzea	BBI 55+ 2020
2.4. Politikan parte hartzea	BBI 55+ 2020
3. eremua: bizimodu independente, osasuntsu eta segurua	
3.1. Ariketa fisikoa	BBI 55+ 2020
3.2. Osasuna eta hortz-haginak zaintzea	BBI 55+ 2020
3.3. Etxebizitza independentea	BBI 55+ 2020
3.4. Batez besteko diru sarrera erlatiboak	SPSI 2018
3.5. Pobrezia arriskurik gabe	SPSI 2018
3.6. Gabezia material larriarik gabe	SPSI 2018
3.7. Segurtasun fisikoa	BBI 55+ 2020
3.8. Etengabeko ikaskuntza	BBI 55+ 2020
4. eremua: zahartze aktiborako gaitasuna eta ingurune lagungarria	
4.1. 55 urtekoek 50 urteko bizi itxaropena lortzea	EAEIOI 2018
4.2. Bizimodu osasuntsuko urteen proportzioa 55 urtekoen bizi itxaropenean	EAEIOI 2018
4.3. Ongizate mentala	BBI 55+ 2020
4.4. IKTen erabilera	BBI 55+ 2020
4.5. Gizarte konexioa	BBI 55+ 2020
4.6. Hezkuntza maila	Eustat BJA 2019

KALKULATZEKO METODOA

Euskadiko 2020ko AA1a kalkulatzeko, jatorrizko metodologian adierazitako urratsei jarraitu zaie (Zaidi et al., 2013). Elkarren segidako

urratsen metodo horretan, adierazle eta eremu bakoitzak pisu jakin bat du. Lehenik eta behin, 22 adierazleak lortu behar dira. Adierazle bakoitzaren balioa 0 puntutik 100era artekoa da, eta denak zentzu positiboan formulatuta daude; beraz, zenbat eta handiagoa izan balioa, orduan eta handiagoa izango da adinekoen jarduera maila edo potentzialaren gauzatze maila. Hala ere, adierazle batzuetan, 100 puntuko balioa ezin da benetako helburutzat hartu; are gehiago, batzuetan ez da desiragarria ere, batez ere ez bada kontuan hartzen zer egoeratan gertatzen den jarduera maila hori.

Ondoren, eremu bakoitzeko puntuazioa lortzeko, bertako adierazleen batez besteko aritmetiko haztatua atera behar da, eta indize globalaren balioa kalkulatzeko, berriz, lau eremuetako puntuazioen batez besteko aritmetiko haztatua. Adierazleen eta eremuen pisu espezifikoak 2. taulan jaso dira.

Kalkulu horretatik lortutako emaitzak ranking moduan adieraz daitezke, eta, horrela, lurraldeak elkarren artean alderatu eta bakoitzaren egoera eta jarduna uler daitezke. Horrela, azkar lor daiteke gai jakin batean jardunbide egokiak (adibidez, boluntariotzaren sustapena) non egiten diren jakiteko informazioa, eta, beraz, lagungarria da beste lurralde batzuetatik ikasteko. Gainera, informazio hori erabiltzen dutenek, hala nola politikak egiteaz arduratzen direnek, zenbait helburu ezar ditzakete lurraldeko zahartze aktiboari dagokionez, beharren eta testuinguru zehatzaren arabera. Adibidez, helburu bat izan daiteke adierazle edo eremu jakin batean balio handiak dituen lurralde batean lortutako emaitza berera iristea; edo lurralde multzo batek denbora tarte jakin batean lortutako gehieneko puntuazioak erabiliz kalkulaturako AAI globalaren baliora iristea; edo, are gehiago, etorkizunean gainditzeko erreferentzia gisa jar litezke lurralde batean iraganean lortutako emaitzak.

Halaber, AAI indizearen kalkulua biztanleria osoarentzat egin daiteke, edo emakumeentzat eta gizonentzat bereiz. Horri esker, adierazleetan eta eremuetan dagoen genero arrakala kalkula daiteke. Urrats hori garrantzitsua da, zahartze aktiboaren zenbait alderditan genero desberdintasunak daudelako, hala nola lan merkatuko parte-hartzean, bizi itzaropenean edo zainketetan. Horregatik, metodologia honetan, gizonen eta emakumeen AAI indizea bereiz kalkulatzeko sustatzen da, zahartze aktiboa generoaren ikuspuntua aintzat hartuta sustatuko duten politika publikoak diseinatze eta abian jartzeko ebidentziak lortzeko asmoz.

2. taula. Adierazleen eta eremuen pisuak.

Adierazleak / Eremuak	Adierazleen pisua	Eremuen pisua
1.1. 55-59 enplegu tasa	% 25	
1.2. 60-64 enplegu tasa	% 25	
1.3. 65-69 enplegu tasa	% 25	
1.4. 70-74 enplegu tasa	% 25	
1. eremua: Enplegua		% 35
2.1. Boluntariotza jarduerak	% 25	
2.2. Seme-alabak eta bilobak zaintzea	% 25	
2.3. Gaixoak eta desgaituak zaintzea	% 30	
2.4. Politikan parte hartzea	% 20	
2. eremua: Gizartean parte hartzea		% 35
3.1. Ariketa fisikoa	% 10	
3.2. Osasuna eta hortz-haginak zaintzea	% 20	
3.3. Etxebizitza independentea	% 20	
3.4. Batez besteko diru sarrera erlatiboak	% 10	
3.5. Pobrezia arriskurik gabe	% 10	
3.6. Gabezia material larririk gabe	% 10	
3.7. Segurtasun fisikoa	% 10	
3.8. Etengabeko ikaskuntza	% 10	
3. eremua: Bizimodu independente, osasuntsu eta segurua		% 10
4.1. 55 urtekoek 50 urteko bizi itxaropena lortzea	% 33	
4.2. Bizimodu osasuntsuko urteen proportzioa 55 urtekoen bizi itxaropenean	% 23	
4.3. Ongizate mentala	% 17	
4.4. IKTen erabilera	% 7	
4.5. Gizarte konexioa	% 13	
4.6. Hezkuntza maila	% 7	
4. eremua: Zahartze aktiborako gaitasuna eta ingurune lagungarria		% 20

HELBURUAK

Euskadiko 2020ko AAla kalkulatzeko, hauek izan dira helburuak:

- Politika publikoak sustatzean zer arlo azpimarratu behar diren hautematea, Euskadin zahartzen ari diren pertsonen bizi kalitatea bultzatzeko eta areagotzeko, genero ikuspegia ere kontuan hartuta. Horretarako, zahartze aktiboaren osagaiei buruzko ebidentzia kuantitatiboak eman nahi dira, eta politika publikoen bidez lortu beharreko helburuak ezartzen lagundu.
- Estatuko eta Europa mailako konparaketa egitea, egungo egoera ezagutzeko eta beste lurralde batzuekiko trukea errazteko. Horretarako, EB-28ko herrialdeen arteko konparaketa egin da, EB-28ko AAI indizearen kalkulu berrienean oinarrituta (2018ko AAla).
- Indizearen aurreko neurketatik (2014koa) emandako bilakaera ezagutzea, 2015-2020ko Zahartze Aktiborako Euskal Estrategiaren eta urteotan zahartzaroaren inguruan ezarritako politiken inpaktua neurtzeko. Emaitzak

Emitzak

AAI-A EUSKADIN

Indize orokorra

2020ko AAI indize globalaren balioa 37,3 da Euskadin, EB-28ko batezbestekoa 35,7 izanik. Emitza horrek 11. postuan jartzen du Euskadi Europar Batasuneko 28 herrialdeen rankingean. Horrela, taularen goiko erdialdean dago Erkidegoa, inguruko zenbait herrialderen aurretik, hala nola Italia edo Portugal. Taulako goiko lekuetan Suedia, Danimarka, Herbehereak edo Erresuma Batua daude, 40 puntutik gorako balio globalak lortu baitituzte.

Datuak eremuka aztertuz gero, Euskadiko balioa Europako batezbestekoa eta Estatukoa baino handiagoa da, gizarteko parte-hartzearen eremuan izan ezik. Baina emitzak hobeak dira arlo hauetan: 55 urteko eta gehiagoko pertsonen ekarpena lan merkatuan, egungo osasun portaerak, independentzia eta segurtasuna. Eta horri esker, zahartu ahala, bizimodu osasuntsu, independente eta segurua izan dezakete, eta zahartze aktiboa eta osasuntsua sustatzeko gaitasun handia eta ingurune egokia dituzte.

Gogoan izan behar da AAIa kalkulatzeko erabilitako 22 adierazleetatik 12 Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen bizi baldintzei buruzko 2020ko inkestatik datozela. Beraz, adierazleen balioan eragina izan dezake COVID-19ak eragindako osasun alertak eta ezohiko egoerak; izan ere, 2., 3. eta 4. eremuetako jarduera normalari eragin dio COVID19ak, eta batez ere gizarteko parte-hartzeari, zeinean emitza okerragoak lortu baitira. Horrekin batera, nabarmendu behar da 2018koak direla Europako herrialdeetako AAI indizearen balioak lortzeko erabilitako datuak.


Lurraldean zahartze aktiboaren inguruan helburu potentzial bat ezartzeko eta EB-28ko herrialdeen arteko trukea errazteko, AAI indize globala kalkulatzeko lurralde guztietako adierazle bakoitzeko gehieneko puntuazioak erabili dira. Horrela, asmo handiko helburu bat ezarri da, baina 100eko maximoa baino errealistagoa. Kasu honetan, AAI indize

globalaren balioa 55,3 izango litzateke, eta, beraz, Euskadin zahartze aktiboaren potentzial gehiena dagoeneko garatzen ari den arren, beste heren bat bultza liteke helburua betetzeko.

3. taula. AAI globalaren emaitzak.

	Enplegua	Gizartean parte hartzea	Bizimodu independentea	Gaitasuna eta ingurune lagungarria	Balioa	Postua
Euskadi	31.2	12.6	73.3	73.1	37.3	11
Estatua	25.7	16.2	71.6	59.7	33.7	19
EB-28	31.1	17.9	70.7	57.5	35.7	

2. irudia. EB-28ko herrialdeen rankinga indize globalean (2018ko AAIa).



Enplegua

Enpleguaren eremuan 55 urtetik 74ra bitartekoek gizarteari egindako ekarpen ordaindua jasotzen da, eta AAI globalaren azken balioaren % 35 da. Eremu honetako balioa 4 adierazleren bidez lortzen da, 5 urteko 4 adin talderen (55-59 urte, 60-64 urte, 65-69 urte eta 70-74 urte) okupazio tasa neurtuta. Horrela, Euskadik 31,2 puntu ditu enpleguaren eremuan, Europako batezbestekoa (31,1) baino apur bat gorago, eta, beraz, 13. postuan dago.


Adierazleak banaka aztertzen baditugu, Europako batezbestekoarekin eta Estatuko balioarekin alderatuta ikusten da Euskadin enplegu tasa handiagoa dela 55 urtetik 64rako adin tartean. Baina 65 urtetik gorako enplegu tasak txikiagoak dira. Hala ere, adierazle horietan puntuazio txikia izateak potentziala beste herrialde batzuetan baino gutxiago aprobetxatzen dela islatzen badu ere, horrek ez du esan nahi emaitza okerragoa denik. Adierazlean puntuazio txikiagoa izateak adieraz dezake pentsio sistema on bat dagoela, erretirodunek bizi baldintza onak izatea ahalbidetzen duena, eta, beraz, haientzat ez dela erakargarria lanean jarraitzea. Halaber, adineko pertsonak lan merkatuan mantentzeko politika urrien emaitza ere izan daiteke. Lurraldeetako balio maximoetan oinarritutako kalkulutik 49,7 puntuko helburu espezifikoa lortu da enpleguaren eremuan.

Suedia da eremu horretan emaitzarik onenak izan dituen herrialdeetako bat, non handia den 55 urtetik 69ra bitartekoen okupazio tasa. Gainera, herrialde horrek balio maximoak lortu ditu 2 adierazleetan (83,2 eta 67,5, hurrenez hurren, 55-59 eta 60-64 adin tartetako okupazio tasan). Bestalde, Estoniak 65 urtetik 74ra bitartekoen okupazio tasaren baliorik handienak ditu (31,8 eta 16,3, hurrenez hurren, 65-69 eta 70-74 adin tartetean). Bi herrialdeetako egoera eta politika publikoak sakonago azter litezke, enplegu tasak hain handiak izatearen arrazoiak ezagutzeko.

4. taula. Enpleguaren eremuko emaitzak

	55-59 okupazio tasa	60-64 okupazio tasa	65-69 okupazio tasa	70-74 okupa- zio tasa	Balioa	Postua
Euskadi	72,2	46,6	4,8	1,3	31,2	13
Estatua	59,3	36,8	5,3	1,2	25,7	23
EB-28	67,2	38,6	12,5	6,1	31,1	

3. irudia. EB-28ko herrialdeen rankinga enpleguaren eremuan (2018ko AAIA).



Gizartean parte hartzea

Eremu honetan, 55 urtetik gorako pertsonak gizarteari egiten dioten ekarpen ordaindu gabea kuantitatiboki adierazten da. Horretarako, parte hartzeko modu desberdinak islatzen dituzten 4 adierazle daude: erakunde formaletan borondatez egindako jarduerak, politikan parte hartzea, seme-alabak edo bilobak zaintzea eta gaixoak edo desgaituak zaintzea. Enpleguaren eremuan bezala, indize globalaren puntuazioaren % 35 dagokio.

Euskadiren puntuazioa (12,6) Estatukoa (16,2) eta Europako batezbestekoa (17,9) baino txikiagoa da. Horrela, Euskadi 24. lekuan dago, taularen beheko aldean. Hala ere, gogoan izan behar da eremu honetan erabilitako adierazle guztiak 2020ko bizi baldintzei buruzko inkestatik datozela, eta COVID19aren pandemiaren ondoriozko osasun

krisiak eragina izan dezakeela emaitzetan. 2020an, etxetik kanpo edo bizikide ez diren pertsonekin egiten diren jarduera guztiei neurri handiagoan ala txikiagoan eragin zieten segurtasun murrizketak egon ziren.

Adierazleak banaka hartuta ikusten da Euskadin 55 urteko pertsonen Espainian baino parte-hartze handiagoa dutela boluntariorizan eta politikan, baina Europako batezbestekoa baino txikiagoa: Euskadin, puntuazioak 6,9 eta 10,7 dira hurrenez hurren, eta EB-28ren kasuan, 8,4 eta 18,6. Horrek esan nahi du 2020an 55 urtetik gorako pertsonen % 6,9k boluntarioritza lana egin duela erakunde formaletan (astero), eta % 10,7k jarduera politikoetan parte hartu duela. Bestalde, zaintza lanei lotutako bi adierazleetan (adingabeak eta gaixoak edo desgaituak), Euskadiko balioak (17,5 eta 14,6, hurrenez hurren) Estatukoak eta Europako batezbestekoa baino txikiagoak dira. Horrek esan nahi du 55 urtetik gorako pertsonen % 17,5ek seme-alabak edo bilobak zaindu edo hezi dituela eta % 14,6k gaixo dauden edo aniztasun funtzionala duten senideak, bizilagunak edo lagunak zaindu dituela astero.


COVID19aren osasun krisiak eta ondoriozko murrizketek parte-hartzean (batez ere adinekoenean) izandako balizko eragina jasotzeko asmoz, zenbait galdera sartu ziren 2020ko BBI inkestan, emaitzetan eragindako desbideratzea kuantifikatzeko. Hala, boluntarioritzaren kasuan, Euskadiko 55 urtetik gorako pertsonen % 9,5ek adierazi du jarduera horiek aurreko urteko hilabete berean baino maiztasun txikiagoz egin dituela. Beste pertsona batzuen zaintzarekin lotutako lanetan, berriz, % 6,6k adierazi du aurreko urtean baino maiztasun txikiagoz egin dituela zaintza lanak.

Halaber, lurraldeetako adierazle guztien balio maximoetan oinarritutako kalkulutik 38,7 puntuko helburu espezifikoa lortu da gizarteko parte-hartzearen eremuan, eta hauek dira emaitzarik onenak lortu dituzten herrialdeak: Herbehereak, boluntarioritzaren balio maximoa (25,1); Zipre, seme-alaben eta biloben zaintzako baliorik handiena (46,5); Frantzia, gaixo dauden edo aniztasun funtzionala duten senide, bizilagun edo lagunaren zaintzako baliorik handiena, eta Suedia, 55 urtetik gorako parte-hartze politikoko baliorik handiena (48,4).

5. taula. Gizarteko parte-hartzearen eremuko emaitzak.

	Boluntariotza	Seme-alabak eta bilobak zaintzea	Gaixoak eta desgaituak zaintzea	Politikan parte hartzea	Balioa	Postua
Euskadi	6,9	17,5	14,6	10,7	12,6	24
Estatua	3,4	34,2	17,4	7,8	16,2	15
EB-28	8,4	26,0	18,5	18,6	17,9	

4. irudia. EB-28ko herrialdeen rankinga gizarteko parte-hartzearen eremuan (2018ko AAIA).



Bizimodu independente, osasuntsu eta segurua

Eremu honetan, 8 adierazleren bidez, lurralde jakin batean bizi diren adinekoen egungo emaitzak jaso dira, arlo hauetan: osasun portaerak, arreta medikoa, elementu ekonomikoak, independentzia eta segurtasuna. Horiei esker, zahartzen ari diren pertsonen bizimodu independente, osasuntsu eta segurua izan dezakete. Adierazleek jarduera hauek neurtzen dituzte: ariketa fisikoa, osasunaren zaintza (medikoa eta hortz-haginetakoa), etxebizitza independentea, batez besteko diru sarrerak, pobrezia arriskua, gabezia materiala, segurtasun fisikoa eta bizitza osoan zeharreko ikaskuntza.

Kasu honetan, Euskadik 73,3 puntuko balioa lortu du, eta 11. postuan dago, Estatuaren (71,6) eta EB-28ko batezbestekoaren (70,7) gainetik. Balio horrekin, Euskadi taularen goiko aldean dago.

Adierazleak banaka aztertzean, nabarmentzekoa da astean 5 aldiz baino gehiagotan ariketa fisikoa egiten duten adinekoen ehunekoa (% 67,1); adierazle horretan balio handiak dituzten beste herrialde batzuetan, adibidez Suedian eta Finlandian, ehunekoak askoz txikiagoak dira: 37,3 eta 47,3, hurrenez hurren. Bizitza osoan zeharreko ikaskuntzaren eta gabezia material larririk ezaren adierazleetan ere, Euskadiko balioak (5,5 eta 98,3, hurrenez hurren) Estatukoak (3,1 eta 97,5) eta EB-28ko batezbestekoak (5,1 eta 92,6) baino handiagoak dira. Horrek esan nahi du Euskadin 55 urtetik 74ra bitartekoen % 5,5ek adierazi duela hezkuntza edo prestakuntza jaso duela inkesta egin aurreko 4 asteetan, eta 65 urteko edo gehiagoko pertsonen % 8,3k ez duela gabezia material larririk.

Bestalde, Euskadiko batez besteko errenta erlatiboaren adierazlea Estatukoa baino txikiagoa da; zentzu horretan, Estatuak balio gorena lortu du, besteak beste Greziak, Frantziak, Luxenburgok eta Hungariak bezalaxe. Hala ere, herrialde horietako batzuetan badirudi balio hori 65 urtetik beherakoek 65 urtetik gorakoek baino diru sarrera erlatibo txikiagoak dituztelako dela, adinekoek diru sarrera handiak izateagatik baino gehiago (Abellán eta Pujol, 2016); hain zuzen, hori izan zen krisi ekonomikoaren ondorioetako bat. Pobreziari buruzko adierazleari dagokionez, Euskadiko balioa Estatukoa baino txikiagoa da, eta EB-28ko batezbestekoa baino handiagoa. Horrek esan nahi du 65 urteko edo gehiagoko pertsonen % 92,8 ez dagoela pobrezia arriskuan. Etxebizitza independentearen adierazlearen arabera, 75 urteko eta gehiagoko pertsonen % 74,7 bakarrik edo bikotekidearekin bizi da; EB-28n, % 86,0koa da portzentajea; Estatuan, ostera, % 76,9koa. Halaber, Euskadin segurtasun fisikoaren adierazlea 80,5 da; hau da, Estatuan


(83,5) baino txikiagoa eta EB-28n (72,6) baino handiagoa. Balio horrek adierazten du 55 urteko edo gehiagoko pertsonen ehuneko horri segurua edo oso segurua iruditzen zaiola ilundu ondoren oinez ibiltzea bizi diren inguruetan.

Osasunaren eta hortz-haginen zaintzari dagokionez, Euskadiko balioa (73,5) Estatukoa (83,9) eta EB-28ko batezbestekoa (84,3) baino nabarmen txikiagoa da. Hala ere, aipatu behar da COVID19aren pandemiaren ondoriozko osasun alertak eragina izan duela, ziurrenik, lortutako emaitzan. Izan ere, mediku kontsulta behar izan arren osasun zerbitzuetara jo ez dutela erantzun duten pertsonen % 60,5ek adierazi du alarma egoeran gertatu zela hori, osasun sistema saturatuta zegoela.

6. taula. Bizimodu independente, osasuntsu eta seguruaren eremuko emaitzak.

	Ariketa fisikoa	Osasu-na eta hortz-haginak zaintzea	Etxebizitza independentea	Batez besteko errenta erlatiboa	Pobrezia arriskurik gabe	Gabezia materialik gabe	Segurtasun fisikoa	Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza	Balioa	Postua
Euskadi	67,1	73,5	74,7	92,3	92,8	98,3	80,5	5,5	73,3	11
Estatua	16,1	83,9	76,9	100,0	94,0	97,5	83,3	3,1	71,6	13
EB-28	15,8	84,3	86,0	85,8	92,0	92,6	72,6	5,1	70,7	

Azkenik, herrialdeetako adierazle guztien balio maximoetan oinarritutako kalkulutik 87,2 puntuko helburu espezifikoak lortu da bizimodu independente, osasuntsu eta seguruaren eremuan. Kasu honetan, Euskadi da ariketa fisikoaren adierazlean baliorik handiena lortu duen lurraldea. Austrian osasunaren eta hortz-haginen zaintzako baliorik handiena lortu da. Luxenburgon gabezia material larririk ezaren baliorik onena. Eta Finlandian segurtasun fisikoarena. Bestalde, Greziak, Espainiak, Frantziak, Luxenburgok eta Hungariak lortu dituzte baliorik handienak batez besteko errenta erlatiboan, eta Danimarkak gainerako 3 adierazleetan: etxebizitza independentea, pobrezia arriskurik eza eta bizitza osoan zeharreko ikaskuntza.

5. irudia. EB-28ko herrialdeen rankinga bizimodu independente, osasuntsu eta seguruaren eremuan (2018ko AAla).

Zahartze aktiborako gaitasuna eta ingurune lagungarria

Eremu honetan, pertsonen baliabideak, osasun kapitala eta giza kapitala kontuan hartuta, etorkizunean zahartze aktiboa eta osasuntsua sustatzeko gaitasuna eta ingurune lagungarria islatzen dira. Sei adierazle daude: bizi itxaropena, desgaitasunik gabeko bizi itxaropena, ongizate mentala, teknologia berrien erabilera, gizarte konexioa eta hezkuntza maila.

Euskadik Europako gainerako herrialdeek baino puntuazio handiagoa lortu du (73,1), eta lehen postuan dago; hain zuzen, 10 puntu baino gehiagoko aldearekin Estatuarekiko (59,7) eta EB-28ko batezbestekoarekiko (57,5).


Adierazleak banaka hartuta, Euskadiko balioak Estatukoa eta EB-28ko batezbestekoa baino handiagoak dira ia adierazle guztietan, 10 puntu inguruko aldearekin: desgaitasunik gabeko bizi itxaropena (75,7ko balioa, 55,4rekin eta 53,4rekin alderatuta), ongizate mentala (85,3ko balioa, 74,2rekin eta 73,0rekin alderatuta), IKTen erabilera (80,4ko balioa, 47,0rekin eta 53,9rekin alderatuta), edo gizarte konexioa (96,0ko balioa, 66,1ekin eta 49,3rekin alderatuta). Halaber, bizi itxaropenaren proportzioa Estatuakoaren antzekoa da (60,3koa eta 60,4koa, hurrenez hurren), eta EB-28ko batezbestekoa (55,0koa) baino handiagoa. Hala, Estatuarekin batera, 55 urtekoen bizi itxaropenaren proportzioan baliorik handienetako bat lortu du Euskadik, adierazlean ezarritako 105 urteko helburuarekiko. Gainera, Euskadik baliorik handienetako bat lortu du osasun arazoek jarduera mugatu gabeko bizi urteen proportzioan, Suediarekin batera. Bestalde, Euskadin, 55 urtetik gorakoen % 85,3k ongizate mentala du, eta % 96,0k gizarte konexio handia du, lagunekin, senideekin edo lankideekin astero eta helburu sozialekin biltzen delako. Azkenik, 55 urtetik 74ra bitartekoan % 80,4k dio Internet gutxienez astean behin erabiltzen duela, eta % 44,6k bigarren hezkuntzako eta goi mailako ikasketak amaitu ditu.

Kasu honetan, litekeena da COVID19aren krisiak eragina izatea emaitza horietako batzuetan, baina oraingoan eragin positiboa izango litzateke. Adibidez, IKTen erabileraren balioan. Baliteke mugikortasuneko eta beste pertsona batzuekin elkartzeko murrizketek eragina izatea Interneten erabileran; izan ere, denboraldi batean, Internet izan da gertukoak, senideak eta lagunak ikusi ahal izateko bide bakarra edo bakanetako bat.

7. taula. Zahartze aktiborako gaitasunaren eta ingurune lagungarriaren eremuko emaitzak.

	Bizi itxaropenaren proportzioa	Desgaitasunik gabeko bizi itxaropena	Ongizate mentala	IKTen erabilera	Gizarte konexioa	Hezkuntza maila	Balioa	Postua
Euskadi	60,3	75,7	85,3	80,4	96,0	44,6	73,1	1
Estatua	60,4	55,4	74,2	47,0	66,1	34,8	59,7	14
EB-28	55,0	53,4	73,0	53,9	49,3	65,2	57,5	

Lurraldeetan lortutako adierazle guztietako balio maximoetan oinarritutako kalkulutik, 78,0 puntuko helburu espezifiko bat lortu da eremu honetan. Kasu honetan, Euskadik balio handienetako bat lortu du 55 urterekin geratzen den 50 urteko bizi itxaropenean (60,3), eta baliorik handiena gizarte konexioan (96,0). Bestalde, Suediak desgaitasunik gabeko bizi itxaropenaren baliorik handiena lortu du (78,9), Finlandiak ongizate mentalaren baliorik handiena (88,1), Luxenburgok IKTen erabilerarena (91,0) eta Lituaniak hezkuntza mailarena (88,8).

6. irudia. EB-28ko herrialdeen rankinga zahartze aktiborako gaitasunaren eta ingurune lagungarriaren eremuan (2018ko AAIA).

GENERO ARRAKALA

Zahartzearen ibilbideak, eta, era berean, zahartze aktiboarenak, desberdinak dira gizonentzat eta emakumeentzat. Ibilbide horiek lotura dute hainbat faktoreekin, zeinak emakumeei eta gizonei haien bizi zikloan eragiten dieten eta zahartze aktiboa bultzatzen duten hainbat alderditan islatzen diren, hala nola lan merkatuko parte-hartzean, bizi itxaropenean edo zaintzetan. AAI proiektuan garrantzitsutzat jotzen da indize globala, eremuak eta adierazleak emakumeentzat eta gizonentzat bereiz kalkulatzea, bi generoen artean potentzialaren garapenari eta zahartze aktiborako gaitasunari dagokienez zer alde dauden aztertzeko eta ebidentziak lotzeko, eta, horretan oinarrituta, zahartze aktiboa sustatuko duten politika publikoak diseinatu eta abiarazi ahal izateko, genero ikuspegia kontuan hartuta.


Euskadin AAI indizearekin neurtutako zahartze aktiboan generoen artean zer alde dauden jakiteko asmoz, bi sexuetako kalkulu orokorra eta emakumeen eta gizonen puntuazioen arteko aldea jaso dira atal honetan. Arrakala positiboak esan nahi du emakumeek gizonek baino puntuazio handiagoa lortu dutela, eta, alderantziz, arrakala negatiboak esan nahi du gizonek lortu dutela puntuaziorik handiena. Horrela, indize globalean eta eremu bakoitzean dagoen genero (des)berdintasuna ezagutu daiteke.

8. taula. AAI globalaren emaitzak gizonentzat eta emakumeentzat.

	Enplegua	Gizartean parte hartzea	Bizimodu independentea	Gaitasuna eta ingurune lagungarria	Balioa
Gizonak	35,1	12,5	76,5	73,4	39,0
Emakumeak	27,6	12,8	71,0	72,9	35,8

Kasu honetan, zahartze aktiboaren indize globalean dagoen genero arrakalak adierazten du Euskadin emakumeek gizonek baino puntuazio txikiagoa lortu dutela. Genero arrakala $-3,2$ puntukoa da; hau da, EB-28ko batezbestekoa ($-3,1$ ekoa) baino $0,1$ puntu handiagoa. Arrakala hori EB-28ko herrialdeetako indize globalarekin alderatuz gero, gizonen aldeko desberdintasun hori ia herrialde guztietan ikusten da, Estonian, Finlandian eta Frantzian izan ezik.

7. irudia. EB-28ko herrialdeen rankinga indize globalean (2018ko AAIa). Gizonak, emakumeak eta genero arrakala.



Bai 7. eta 8. irudietan, bai 8., 9., 10., 11. eta 12. tauletan, Euskadin AAI indizearen eremu guztietan dagoen genero arrakala adierazi da. Kasu honetan, enpleguarena da genero arrakalarik handiena duen eremua, 7,5 puntuko aldearekin gizonen eta emakumeen puntuazioen artean (gizonen alde), eta, ondoren, bizimodu independente, osasuntsu eta seguruarena, 5,5 puntuko aldearekin (hori ere gizonen alde). Baliteke emaitza horiek agerian uztea emakumeek ez dituztela gizonen aukera berberak enplegua lortzeko eta horrek desberdintasun sozioekonomikoak eragin ditzakeela.

9. taula. Enpleguaren eremuko emaitzak, emakumeentzat eta gizonentzat.

	55-59 okupazio tasa	60-64 okupazio tasa	65-69 okupazio tasa	70-74 okupazio tasa	Balioa
Gizonak	80,0	52,8	6,4	1,3	35,1
Emakumeak	65,2	40,6	3,3	1,3	27,6

Enpleguari dagokionez, genero arrakala -7,5 puntukoa da (alegia, gizonen balioak emakumeenak baino handiagoak dira), EB-28ko batezbestekoa (-8,5ekoa) baino txikiagoa. Enplegu tasako alderik handienak 55 urtetik 59ra bitartekoen taldean ikusten dira, eta, ondoren, antzeko arrakalarekin, 60 urtetik 64ra bitartekoenean. Arrakalaren azalpenetako bat izan liteke zaintza lanak sarriago egiteko joera dagoela eta, tradizioz, lan hori emakumeek egiten dutela gehienetan.

10. taula. Gizarteko parte-hartzearen eremuko emaitzak, gizonentzat eta emakumeentzat.

	Boluntariotza	Seme- alabak eta bilobak zaintzea	Gaixoak eta desgaituak zaintzea	Politikan parte hartzea	Balioa
Gizonak	6,5	15,0	14,3	13,9	12,5
Emakumeak	7,3	19,5	14,9	8,1	12,8

Gizarteko parte-hartzearen eremuari dagokionez, puntuazioek erakusten dute emakumeek gizonen baino ekarpen zertxobait handiagoa egiten diotela gizarteari (12,8koa eta 12,5ekoa, hurrenez hurren). Kasu honetan, genero arrakala 0,3koa da, emakumeen alde, eta EB-28ko batezbestekoa (0,7koa) baino zertxobait txikiagoa. Adierazle guztietan, parte-hartze politikoa kenduta, emakumeek dute jarduera mailarik handiena, eta gizonen baino gehiago hartzen dute parte jarduera hauetan: seme-alabak eta bilobak zaintzen, gaixoak edo desgaituak zaintzen eta boluntariotzan. Aldiz, gizonen emakumeek baino gehiago hartzen dute parte politikan.

11. taula. Bizimodu independente, osasuntsu eta seguruaren eremuko emaitzak, emakumeentzat eta gizonentzat.

	Ariketa fisikoa	Osasuna eta hortz-haginak zaintzea	Etxebizitza independentea	Batez besteko errenta erlatiboa	Pobrezia arriskurik gabe	Gabezia materialik gabe	Segurtasun fisikoa	Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza	Balioa
Gizonak	69,7	74,5	79,7	100,0	95,0	98,9	88,2	5,4	76,5
Emakumeak	64,9	72,7	71,5	87,9	91,1	97,8	74,3	5,6	71,0


Bizimodu independente, osasuntsu eta seguruaren eremuan, Euskadin genero arrakala $-5,5$ ekoa da, hau da, EB-28ko batezbestekoa ($-3,2$ koa) baino zertxobait handiagoa. Genero arrakalarik handiena erakusten duten adierazleak batez ere segurtasun ekonomiko eta finantzarioa neurtzen dutenak dira (adibidez, batez besteko errenta erlatiboa, segurtasun fisikoa edo etxebizitza independentea). Esate baterako, batez besteko errenta erlatiboa 100,0koa da gizonen kasuan (balio maximoa), eta 87,9koa, berriz, emakumeen kasuan. Era berean, emakumeek segurtasun fisikoaren pertzepzio txikiagoa dute: 74,9koa, gizonen 88,2koarekin alderatuta. Emaitzen eredu horren arabera, bi generoen bizi baldintzak desberdinak direla esan liteke, eta emakumeen kasuan, segurtasunaren pertzepzioa txikiagoa dela.

12. taula. Zahartze aktiborako gaitasuna eta ingurune lagungarria, gizonentzat eta emakumeentzat.

	Bizi itxaropenaren proportzioa	Desgaitasunik gabeko bizi itxaropena	Ongizate mentala	IKTen erabilera	Gizarte konexioa	Hezkuntza maila	Balioa
Gizonak	54,8	80,2	88,6	82,8	96,0	50,1	73,4
Emakumeak	65,2	71,9	82,5	78,3	96,0	39,7	72,9

Azkenik, laugarren eremuan, genero arrakala $-0,5$ ekoa da, hots, EB-28ko batezbestekoa ($-0,1$ koa) baino zertxobait handiagoa, gizonen puntuazio handiagoa lortu baitute emakumeekin alderatuta (73,4 eta 72,9, hurrenez hurren). Kasu honetan, emakumeek gizonen baino balio handiagoa lortu dute 55 urtekoen bizi itxaropenaren adierazlean, eta horrek adierazten du neurri handiagoan gerturatzen direla 105 urteko bizi itxaropenaren helburura. Bestalde, gizarte konexioari dagokionez, bi generoetan berdinak dira balioak. Aitzitik, gizonen desgaitasunik gabeko bizi itxaropen handiagoa dute, bai eta ongizate mental, IKTen erabilera eta hezkuntza maila handiagoak ere. Hortaz, esan liteke gizonengan emakumeengan baino neurri handiagoan betetzen direla zahartze aktiboa ahalbidetzen duten baldintzak.

8. irudia. EB-28ko herrialdeen rankinga lau eremuetan (2018ko AAla). Gizonak, emakumeak eta genero arrakala.



AAI-A LURRALDEKA

Indize Orokorra

AAI indize globalaren balioa 37,3 da Euskadin. Arabak eta Gipuzkoak puntuaziobera dute indize globalean (37,9), Euskadi osoko batezbestekotik apur bat gora. Bizkaian, berriz, balioa 36,7 da. Emaita horien arabera, alde txikia dago 3 lurralde historikoen artean.

Lurralde bakoitza indizea osatzen duten dimentsioetako batean nabarmentzen da. Esate baterako, Arabak du baliorik handiena zahartze aktiborako gaitasunean eta ingurune lagungarrian, eta Bizkaia nabarmentzen da zahartzen ari diren pertsonen gizartean duten parte-hartzean eta ordaindu gabeko ekarpenean. Gipuzkoak, berriz, balio handiak ditu enpleguaren eta bizimodu independente, osasuntsu eta seguruaren eremuetan.

13. taula. AAI globala lurraldeka.

	Enplegua	Gizartean parte hartzea	Bizimodu independentea	Gaitasuna eta ingurune lagungarria	Balioa
Euskadi	31,2	12,6	73,3	73,1	37,3
Araba	31,2	12,6	73,3	76,5	37,9
Bizkaia	30,8	13,0	72,7	70,7	36,7
Gipuzkoa	32,2	12,0	74,7	74,9	37,9

Enplegua

Eremu honetan, 55 urtetik 74ra bitartekoek gizarteari egindako ekarpen ordainduarenean, erretiroa hartu aurreko adin tarteetako adierazleetan handia da lan merkatuko parte-hartzea, eta, konparazioz, txikiagoa erretiroa hartzeko legezko adinaren ondorengoa, 3 lurraldeetan. Gipuzkoak du baliorik handiena lehenengo eremuan (32,2koa), eta, ondoren, Araba (31,2) eta Bizkaia (30,8) daude.

Zehazki, Araban eta Gipuzkoan, 55 urtetik 59ra bitarteko landunen proportzioa % 70,0tik gorakoa da, eta, atzetik Bizkaia dago, hori ere okupazio tasa handi batekin adin tarte horretarako (% 68,9). Beste era batean esanda, 55 urtetik 59ra bitarteko 3 pertsonatik 2 lanean ari ziren inkesta egin zen unean, lurralde guztietan. Bestalde, 60 urtetik 64ra bitartekoen okupazio tasa ere handia da, eta % 40tik gora dago lurralde

guztietan. Bizkaia da adin tarte horretan lanean ari diren pertsonen proportziorik handiena duena, Euskadiko batezbestekoaren gainetik, eta atzetik oso hurbil daude Araba (% 46,5) eta Gipuzkoa (% 44,9).

Azkenik, 65 urtetik gorakoek okupazioa neurtzen duten bi adierazleei dagokienez, balioa nahiko baxua da Europako beste herrialde batzuetako datuekin alderatuta. Lurralde guztietan, 65 urtetik 69ra bitarteko landunak % 5 baino gutxiago dira; 70 urtetik 74ra bitarteko adin tartean, berriz, % 2 baino gutxiago.

14. taula. Enpleguaren eremuko emaitzak, lurraldeka.

	55-59 okupazio tasa	60-64 okupazio tasa	65-69 okupazio tasa	70-74 okupazio tasa	Balioa
Euskadi	72,2	46,6	4,8	1,3	31,2
Araba	72,4	46,5	4,3	1,4	31,2
Bizkaia	68,7	47,6	4,9	1,8	30,8
Gipuzkoa	78,4	44,.	4,9	0,5	32,2

Gizartean Parte Hartzea

Eremu honetan, 55 urtetik gorako pertsonen bizitza egiten dioten ekarpen ordaindu gabea adierazi da. Ikusten denez, 3 lurraldeetan antzekoa da gizarteko parte-hartzearen maila, eta balioak nahiko baxuak dira denetan. Hala ere, kontuan hartu behar da zer egoeratan geunden eremu honen oinarrian dauden inkestako datuak biltzeko unean (txostenean hainbatetan aipatu da jada). Kasu honetan, Bizkaia da puntuaziorik handiena lortu duen lurraldea (13,0); atzetik oso hurbil daude Araba (12,6) eta Gipuzkoa (12,0).

Boluntariotzari dagokionez, Gipuzkoako eta Arabako balioak Euskadiko batezbestekoa baino handiagoak dira (7,3koa eta 8,0koa, hurrenez hurren). Arabak balio handiagoak lortu ditu seme-alaben eta biloben zaintzan eta politikako parte-hartzean ere (18,7koa eta 12,2koa, hurrenez hurren); Bizkaia, berriz, gaixoen eta desgaituen zaintzan (15,9).

15. taula. Gizarteko parte-hartzearen eremuko emaitzak, lurraldeka.

	Bolunta- riotza	Seme- alabak eta bilobak zaintzea	Gaixoak eta desgaituak zaintzea	Politikan parte hartzea	Balioa
Euskadi	6,9	17,5	14,6	10,7	12,6
Araba	8,0	18,7	11,4	12,2	12,6
Bizkaia	6,4	17,2	15,9	11,6	13,0
Gipuzkoa	7,3	17,4	13,9	8,5	12,0

Bizimodu Independente, Osasuntsu eta Segurua

Eremu honetan, 8 adierazleren bidez arlo hauetako egungo emaitzak jaso dira: osasun portaerak, arreta medikoa, elementu ekonomikoak, independentzia eta segurtasuna. Horiei esker, zahartzen ari diren pertsonak bizimodu independente, osasuntsu eta segurua izan dezakete. Kasu honetan, Bizkaiko balioa 72,7koa da, Arabakoa 73,3koa eta Gipuzkoakoa apur bat handiagoa, 74,7koa.

Lehenik eta behin, Arabak adierazle hauetan lortu ditu baliorik handienak: etxebizitza independentea (77,3), pobrezia arriskuan ez dauden 65 urtetik gorako pertsonen proportzioa (94,8) eta gabezia material larriko egoeran ez dauden 65 urtetik gorakoen proportzioa (99,2). Bestalde, Bizkaiak lortu du baliorik handiena segurtasun fisikoan, 55 urteko edo gehiagoko pertsonen % 80,6 seguru sentitzen baita ilundu ondoren bizi diren inguruetan oinez ibiltzean. Azkenik, Gipuzkoak lortu ditu baliorik handienak ariketa fisikoan (68,7), osasun fisikoaren eta hortz-haginen zaintzan (75,4), batez besteko errenta erlatiboan (98,6) eta bizitza osoan zeharreko ikaskuntzan (5,9).

16. taula. Bizimodu independente, osasuntsu eta seguruaren eremuko emaitzak, lurraldeka.

	Ariketa fisikoa	Osasuna eta hortz-haginak zaintzea	Etxebizitza independentea	Batez besteko errenta erlatiboa	Pobrezia arriskurik gabe	Gabezia materialik gabe	Segurtasun fisikoa	Bizitza osoan zeharreko ikasketak	Balioa
Euskadi	67,1	73,5	74,7	92,3	92,8	98,3	80,5	5,5	73,3
Araba	66,0	73,2	77,3	86,0	94,8	99,2	80,0	5,5	73,3
Bizkaia	66,3	72,4	73,5	93,1	91,6	98,4	80,6	5,2	72,7
Gipuzkoa	68,7	75,4	75,5	98,6	93,8	97,7	80,6	5,9	74,7

Zahartze aktiborako gaitasuna eta ingurune lagungarria

Laugarren eremuak etorkizunean zahartze aktiboa eta osasuntsua sustatzeko gaitasuna eta ingurune lagungarria adierazten ditu. Bertan, Arabak lortu du baliorik handiena (76,5), Gipuzkoak hurrengoa (74,9) eta Bizkaia txikiena (70,7).

Arabak lortu ditu baliorik handienak bizi itxaropenaren adierazleetan (61,6koa eta 88,2koa, hurrenez hurren) eta IKTen erabileran (81,0koa). Bestalde, Bizkaia lortu du baliorik handiena bigarren hezkuntzako ikasketen adierazlean. Azkenik, Gipuzkoa izan da nagusi ongizate mentalean (86,2) eta gizarte konexioan (96,6).

17. taula. Zahartze aktiborako gaitasunaren eta ingurune lagungarriaren eremuko emaitzak, lurraldeka.

	Bizi itxaropenaren proportzioa	Desgaitasunik gabeko bizi itxaropena	Ongizate mentala	IKTen erabilerak	Gizarte konexioa	Hezkuntza maila	Balioa
Euskadi	60.3	75.7	85.3	80.4	96.0	44.6	73.1
Araba	61.6	88.2	85.8	81.0	96.2	42.4	76.5
Bizkaia	60.0	65.9	84.5	80.1	95.6	46.7	70.7
Gipuzkoa	60.1	83.1	86.2	80.7	96.6	42.2	74.9

AAI-A EUSKADIN 2014-2020

Atal honetan, 2020an lortutako emaitzak eta 2014an lortutakoak alderatuko ditugu, eta 6 urteko epe horretan eremuetan eta indize globalean gertatutako aldaketak aztertu. Hemen idatzitakoa irakurtzean eta interpretatzean, bi gauza hartu behar dira kontuan. Batetik, Europako AAI indizean sartutako adierazle batzuen definizioak aldatu egin direla lehenengo kalkulutik bigarrenarena. Eta, bestetik, 2020ko EAEko Adinekoen Bizi Baldintzei buruzko Inkesta zer inguruabarretan egin zen, inkesta horretatik lortu baitira 2020ko AAla kalkulatzeko 22 adierazleetatik 12. Hain zuzen, COVID19aren pandemiaren testuinguruan egin zen inkesta, zeinak biztanle batzuen ongizate mentalari eragin zion (Fernández-Ballesteros eta Sánchez-Izquierdo, 2020), eta etxetik kanpo edo bizikide ez diren pertsonekin egiten diren jarduera guztiei eragin zieten segurtasun murrizketak ezarri ziren. Bi arrazoi horiengatik, zuhurtziaz hartu behar dira alderaketa honen emaitzak.

Indize Orokorra

2014tik 2020ra bitarte, Euskadiko zahartze aktiboaren indize globala 36,6tik 37,3ra igo da; hau da, 0,7 puntuko igoera izan du. Hurrengo taulan ikusten den moduan, eremu guztietan bilakaera positiboa izan da, gizarteko partehartzean izan ezik, non beherakada nabarmena izan den. Zahartze aktiborako gaitasunean eta ingurune lagungarrian gertatu da gorakadarik handiena (7,4 puntukoa), eta, ondoren, enpleguan (5,8 puntukoa). Aldiz, gizarteko parte-hartzeak 8,7 puntu egin du behera. Jarraian, sakonago aztertuko dugu eremu bakoitza.

18. taula. Euskadiko indize globalaren bilakaera 2014tik 2020ra bitarte.

	Enplegua	Gizartean parte hartzea	Bizimodu independentea	Gaitasuna eta ingurune lagungarria	Balioa	Postua
Euskadiko 2020ko AAla	31.2	12.6	73.3	73.1	37.3	11
Euskadiko 2014ko AAla	25.4	21.0	72.3	65.7	36.6	7

2014an eta 2020an Euskadin lortutako puntuazioak, bi-biak, EB-28ko batezbestekoak baino handiagoak dira. Zehazki, 2014an, Euskadiko balioa 36,6koa zen eta EB-28koa 34,1koa; 2020an, ordea, 37,3koa eta 35,7koa, hurrenez hurren. Herrialde gehienetan puntuazioek gora egin dute, Luxenburgon, Italian, Portugalen edo Kroazian izan ezik, horietan behera egin baitute indize globaleko puntuazioek. Bestalde, Euskadik behera egin du gainerako herrialdeekiko posizioaren taulan, 7. postutik 11.era, 28 herrialdeen rankingean.

9. irudia. Indize globalaren bilakaera 2014tik 2020ra bitarte eta EB-28ko herrialdeen rankinga (2018ko AAIa).



Enplegua

Enpleguaren eremuan ikusten denez, 2014tik 2020ra ia 6 puntuko igoera gertatu da (5,9). Horrela, enpleguaren indize espezifikoa 25,4 puntutik 31,2 puntura igo da, eta, beraz, rankingean 2 postu egin du gora Euskadik. Eraitza horrek adieraziko luke 55 urtetik 74ra bitarteko pertsonen inplikazioa eta ekarpen sozial ordaindua areagotu egin direla, lan merkatuan duten parte-hartzearen bidez.


Adin tarte guztietan lanean ari diren pertsonen proportzioan ikusten da igoera hori, 70 urtetik 74ra bitartekoan izan ezik, tarte hori berdin mantendu baita (1,3an). Igoerarik handienak 55-59 eta 60-64 adin tartetan gertatu dira, bi kasuetan 10 puntu inguru egin baitute gora balioek: 55-59 adin tarteko enplegu tasan, 62,1 puntutik 72,2ra, eta 60-64 adin tartean, 35,1 puntutik 46,6ra.

19. taula. Enpleguaren eremuko bilakaera 2014tik 2020ra bitarte.

	55-59 okupazio tasa	60-64 okupazio tasa	65-69 okupazio tasa	70-74 okupazio tasa	Balioa	Postua
Euskadiko 2020ko AAIa	72,2	46,6	4,8	1,3	31,2	13
Euskadiko 2014ko AAIa	62,1	35,1	3,0	1,3	25,4	15

EB-28ko herrialdeen bilakaeraren rankinga adierazten duen 10. irudian ikus daitekeenez, Zipre, Errumania, Kroazia eta Luxenburgo kenduta, herrialde guztietan handitu egin da 55 urtetik gorako pertsonen lan merkatuan duten parte-hartzea. Gainera, Euskadin gertatu da denbora tarte horretan Europako herrialdeetan izandako igoerarik handienetakoa, ia 6 puntukoa.

10. irudia. Enpleguaren eremuko bilakaera 2014tik 2020ra bitarte eta EB-28ko herrialdeen rankinga (2018ko AAla).



Gizartean parte hartzea

Eremu honek adinekoek gizarteari egiten dioten ekarpen ordaindu gabea kuantifikatzen du, eta 2014tik 2020ra bitartean behera egin duen eremu bakarra da. Aipatu bezala, beherakadaren arrazoiak bi izan daitezke: batetik, eremu honetako adierazleen definizioa aldatu egin dela bi kalkuluen artean, eta, bestetik, adierazle horiek lortzeko inkestaren inguruabarrak. Ildo horretan, baliteke segurtasuneko gomendioen eta murrizketen ondorioz behera egin izana hainbat jarduerak, hala nola boluntariotzak, beste pertsona batzuen zaintzak (batez ere seme-alabak eta bilobak) edo parte-hartze politikoak. Bestalde, zaintzari buruzko adierazleak berriro definitu izanak emaitzetan izan dezakeen eraginaz gain, bigarren aldi honetan boluntariotzaren adierazlean asteroko maiztasuna eskatu da, eta, beraz, irizpidea zorrotzagoa izan da. Hortaz, aldaketa eta inguruabar horiek guztiak kontuan hartu behar dira eremu honetako balioen bilakaera aztertzean eta konparatzean.

Bi alderdi horiek kontuan hartuta, 2014tik 2020ra eremu honetako balioek zer bilakaera izan duten aztertuko dugu jarraian. Bi urteen artean, eremu honetako puntuazioak 8,4 puntu egin du behera, 21 puntutik 12,6ra. Ia adierazle guztietako emaitzetan ikusten da eredu bera, 2020ko balioak 2014koak baino txikiagoak baitira. Aldaketarik nabarmenenak boluntariotzan (19,0 puntutik 6,9ra) eta seme-alaben eta biloben zaintzan (44,0 puntutik 17,5era) gertatu dira. 2020an ezarritako mugikortasun eta segurtasun murrizketek eragina izango zuten jarduera horietan; izan ere, osasunerako arriskutsuak izan daitezkeen hainbat jarduera, hala nola adineko pertsonen bizikide ez dituzten seme-alabak edo bilobak zaintzea, bertan behera uztea gomendatu zen. Oro har, pentsatzekoa da etxetik kanpo edo bizikide ez diren pertsonekin egindako jarduera guztiei eragingo zietela murrizketek.


Bestalde, gaixoen eta desgaituen zaintza da 2014tik 2020ra bitartean gora egin duen adierazle bakarra; hala, gaixo dauden eta aniztasun funtzionala duten pertsonak zaintzen dituzten 55 urtetik gorako pertsonen ehunekoa 9,4tik 14,6ra igo da.

20. taula. Gizarteko parte-hartzearen eremuko bilakaera 2014tik 2020ra bitarte.

	Boluntariotza	Seme-alabak eta bilobak zaintzea	Gaixoak eta desgaituak zaintzea	Politikan parte hartzea	Balioa	Postua
Euskadiko 2020ko AA1a	6,9	17,5	14,6	10,7	12,6	24
Euskadiko 2014ko AA1a	19	44,0	9,4	12,3	21,0	9

Nolanahi ere, EB-28ko herrialdeen rankingaren grafikoan ikusten denez, nabarmentzekoa da beherakada handia gertatu dela 28 herrialdeetatik 13tan. Hain zuzen, eremu honetan ikusten dugu 2014tik 2020ra puntuazioak behera egin duen herrialde kopururik handiena, eta horretan erabakigarria izan da bertan sartutako adierazleetako batzuen definizioa aldatu izana. Aipatu bezala, beherakada orokorraren atzean bi inguruabar daude: batetik, boluntariotzan asteroko maiztasuna eskatzea eta, bestetik, zaintza jardueri dagokienez, seme-alaben eta biloben zaintzaren eta gaixoen eta desgaituen zaintzaren adierazleak aldatu izana. Kasu honetan, Euskadik Europako batezbestekoa (17,8) baino puntuazio txikiagoa lortu du, nahiz eta azken hori 0,2 puntu jaitsi den.

11. irudia. Gizarteko parte-hartzearen eremuko bilakaera 2014tik 2020ra bitarte eta EB-28ko herrialdeen rankinga (2018ko AAIA).



Bizimodu independente, osasuntsu eta segurua

Eremu honetan, lurralde jakin batean bizi diren adinekoek bizimodu independente, osasuntsu eta seguruari dagokionez gaur egun emandako datuak jaso dira, 8 adierazleren bidez. Euskadin, eremu honetako 2020ko puntuazioa 2014koa baino handiagoa da, tarte horretan 72,3 puntutik 73,3ra igaro baita (puntu bateko igoera).

Kasu honetan, ariketa fisikoaren eta bizimodu independentearen adierazleek egin dute gora gehien; 2014tik 2020ra bitarte, egunero edo ia egunero ariketa fisikoa egiten duten 55 urtetik gorako pertsonen portzentajea % 60,9tik % 67,1era igo da. Gainera, bakarrik edo bikotekidearekin bizi diren 75 urtetik gorako ehunekoak % 61,0tik % 74,7ra igo da 6 urteko epe horretan. Bestalde, beste 2 adierazletan, osasunaren eta hortz-haginen zaintzan eta segurtasun fisikoan, nabarmen jaitsi dira balioak. Lehenengoari dagokionez, % 81,5etik % 73,5era jaitsi da inkestaren aurreko urtean mediku edo hortz-haginetako arretaren behar guztiak aseta —behar izandako arreta behin ere jaso ezinik geratu gabe— izan dituzten 55 urtetik gorako ehunekoak. Beste behin ere, testuinguruak garrantzi handia du datuok ulertzeko; izan ere, adierazle hori lortzeko erabili den inkesta COVID19aren pandemiaren testuinguruan egin zen, eta horrek, beste ondorio batzuen artean, presio handia eragin du osasun sisteman; horregatik, litekeena da pertsona gehiagok medikuari edo dentistari kontsulta eskatu ez izana edo, eskatu arren, behar zuten arreta jaso ez izana. Bigarren adierazlea, segurtasun fisikoarena, % 89,1etik % 80,5era jaitsi da. Bi kalkuluen artean Europako indizean adierazlearen definizioa aldatu delako izan liteke bilakaera hori; izan ere, gertatutako krimenak neurtzeari utzi eta segurtasun faltaren pertzepzioa neurtzen hasi dira (hain zuzen ere, segurtasunaren pertzepzioa, ilundu ondoren bizilekuaren inguruetan oinez ibiltzean).


Gainerako adierazleetan aldaketak txikiagoak izan dira; adibidez, 65 urtetik gorako segurtasun finantzarioa neurtzen dutenetan. 65 urtekoek 65 urtetik beherakoekiko duten batez besteko errenta 91,3 puntutik 92,3ra igo da, eta gabezia material larririk gabeko biztanleen portzentajea % 97,0tik % 98,3ra. Bestalde, pobrezia atalasearen azpian ez dauden 65 urtetik gorako ehunekoak bi puntu jaitsi da: % 94,8tik % 92,8ra. Azkenik, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzak gora egin du pixka bat, % 5,3tik % 5,5era.

21. taula. Bizimodu independente, osasuntsu eta seguruaren eremuko bilakaera 2014tik 2020ra bitarte.

	Ariketa fisikoa	Osasuna eta hortz-haginak zaintzea	Etxe-bizitza independentea	Batez besteko errenta erlatiboa	Pobre-zia arriskurik gabe	Gabezia materialik gabe	Segurtasun fisikoa	Bizitza osoan zeharreko ikasketak	Balioa	Postua
Euskadiko 2020ko AAla	67,1	73,5	74,7	92,3	92,8	98,3	80,5	5,5	73,3	11
Euskadiko 2014ko AAla	60,9	81,5	61,0	91,3	94,8	97,0	89,1	5,3	72,3	13

EB-28ko herrialdeen rankingean ikusten denez, 2014tik 2020ra bitartean, eremu honetako balioek behera egin dute 28 herrialdeetatik 13tan. Eremu honetan, Euskadik 2 postu egin du gora rankingean, 13.etik 11.era. Horrela, taularen lehen erdian dago, bizimodu independente, osasuntsu eta seguruagoa duten adinekoak dituzten herrialdeekin batera, Belgikaren puntuazio berarekin (73,3) eta EB-28ko batezbestekoaz (70,7) gainetik.

12. irudia. Bizimodu independente, osasuntsu eta seguruaren eremuko bilakaera 2014tik 2020ra bitarte eta EB-28ko herrialdeen rankinga (2018ko AA1a).



Zahartze aktiborako gaitasuna eta ingurune lagungarria

Laugarren eremuan, 6 adierazleren bidez, etorkizunean zahartze aktiboa bultzatuko duten baldintzak eta ingurunea adierazi dira. 2014tik 2020ra arte, eremuaren indize espezifikoak nabarmen egin du gora, 65,7tik 73,1era; hau da, 7 puntu baino gehiago (7,4).

Igoerarik handiena izan duten adierazleak IKTen erabilera, ongizate mentala eta desgaitasunik gabeko bizi itxaropena dira. Lehenengoan, bikoiztu egin da 2014an lortutako balioa, 38,8tik 80,4ra igaro baita. Horrek esan nahi du 2014tik 2020ra bitarte bikoiztu egin dela Internet astean behin gutxienez erabiltzen duten 55 urtetik 74ra bitarteko pertsonen ehunekoa. Horrela, esan liteke Euskadin, gero eta digitalizatuagoa dagoen gizarte honetan, zahartzen ari diren pertsona gehiagok dutela beste pertsona batzuekin komunikatzeko gaitasuna, eta, beraz, gizartearekin aktiboki konprometitzekoa. Eraitza horretan, litekeena da COVID19aren pandemiak ere eragina izatea; izan ere, denboraldi batean, Internet izan da gertukoak, senideak eta lagunak ikusi ahal izateko bide bakarra. Ongizate mentalaren adierazleak ere gora egin du, 2014an 76,6 izatetik 2020an 85,3 izatera, eta desgaitasunik gabeko bizi itxaropenak ere bai, 62,5etik 75,7ra. Horrek esan nahi du ongizate mentala duten pertsonen ehunekoa 10 puntu igo dela azken 6 urteetan, eta desgaitasunik gabeko bizi itxaropena ere handitu egin dela; izan ere, handitu egin da osasun arazoaren ondorioz jarduera mugatu gabeko urteen proportzioa.


Gainerako 3 adierazleetan, txikiagoak izan dira aldaketak. Lehenik eta behin, zertxobait jaitsi da 55 urtekoen bizi itxaropenaren adierazlean ezarritako 105 urteko helburuaren lorpena, 60,5etik 60,3ra. Gizarte konexioari dagokionez, 55 urtetik gorako pertsonen % 96,0 (2014an % 95,8 izan ziren) gutxienez astean behin biltzen da lagunekin, senideekin edo lankideekin; beraz, esan daiteke ia ez dela aldaketarik egon. Azkenik, hezkuntza maila bi puntu inguru igo da (42,4tik 44,6ra), eta, beraz, zertxobait handitu da bigarren hezkuntzako eta goi mailako ikasketak dituzten pertsonen ehunekoa.

22. taula. Zahartze aktiborako gaitasunaren eta ingurune lagungarriaren eremuko bilakaera 2014tik 2020ra bitarte.

	Bizi itxaropenaren proporzioa	Desgaitasunik gabeko bizi itxaropena	Ongizate mentala	IKTen erabilerak	Gizarte konexioa	Hezkuntza maila	Balioa	Postua
Euskadiko 2020ko AAla	60,3	75,7	85,3	80,4	96,0	44,6	73,1	1
Euskadiko 2014ko AAla	60,5	62,5	76,6	38,8	95,8	42,4	65,7	2

Azken eremuan, EB-28ko herrialde guztiek, Luxenburgok eta Kroaziak izan ezik, igoera izan dute 2014tik 2020ra bitartean. Alemaniarekin batera, Euskadik lortu du igoerarik handiena, 7 puntutik gorakoa. Igoera horri esker, Euskadik postu bat egin du gora, eta taulako lehenengo lekuan jarri da, biztanleen zahartze aktibo eta osasuntsurako gaitasunari eta ingurune lagungarriari dagokienez.

13. irudia. Indize globalaren bilakaera 2014tik 2020ra bitarte eta EB-28ko herrialdeen rankinga (2018ko AAla).



Ondorioak

2020ko AAI indizearen kalkuluak agerian utzi du Euskadin nabarmen garatuta dagoela zahartzen ari diren pertsonen potentziala, adierazle gisa hautatu diren ekarpenei eta esperientziei dagokienez. Izan ere, Europako batezbestekoaren gainetik dago indize globalean. Ildo horretan, Euskadiko balioak Europako batezbestekoa eta Estatukoa baino handiagoak dira eremu guztietan, gizarteko parte-hartzean izan ezik, eta bereziki nabarmendu da etorkizunean zahartze aktiboa eta osasuntsua sustatzeko gaitasunari eta ingurune lagungarriari dagokienez.

Eremuetako adierazleen balioak zehatz-mehatz aztertuta zenbait arlo identifikatu dira, lortutako emaitzaren arabera lurralde honetan zahartze aktiboaren maila handitzeko susta litezkeenak. Horien artean daude, besteak beste, adinekoen enplegarritasun aukerak, boluntariorza edo beste pertsona batzuen zaintza, COVID19aren krisiaren aurretik lortutako mailara bueltatzeko. Gainera, badira landu beharreko beste arlo batzuk: adinekoen pobrezia erlatiboko arriskua, etengabeko prestakuntza, segurtasun fisikoaren pertzepzioa edo osasunaren eta hortz-haginen zaintza, arreta hori benetan behar duten pertsonak jasotzerik izan dezaten. Adierazle horiek, balio txikiak eman ez dituzten arren, herritarren segurtasuna eta bizi kalitatea hobetzeko aukera bat dira.

Emaitzak ikusita, emakumeen eta gizonen artean dagoen arrakala txikitzea da azpimarratu beharreko beste alderdi bat, zahartzen ari diren pertsonen arteko genero berdintasunean aurrera egitekotan. Alde horretatik, enpleguarena da genero arrakalarik handieneko eremua, eta, ondoren, bizimodu independente, osasuntsu eta seguruarena. Hori segurtasun ekonomiko eta finantzarioa edo segurtasun fisikoa neurtzen duten adierazleetan hautemandako desberdintasunen ondorio da, batez ere. Adinekoek gizarteari egindako ekarpen ordaindua genero ikuspegia kontuan hartuta bideratuz gero, berdintasun handiagoa ahalbidetuko litzateke bi sexuen artean, eta, horrez gain, murriztu egingo lirarteke emakumeek okupazio tasa txikiagoa izatearen ondoriozko desberdintasun sozioekonomikoak. Kalkuluak sexuaren arabera bereizita egin eta

denboran errepikatuz gero, aukera izango dugu noranzko horretan egindako aurrerapenak kuantifikatu eta monitorizatzeko.

2014ko eta 2020ko indizeak alderatuta, argi dago Zahartze Aktiboaren Indizeak gora egin duela 6 urteotan. Gizarteko parte-hartzea kenduta, arlo guztietan antzeman da gorakada; eta nabarmentzekoa da zahartze aktiborako gaitasunean eta ingurune lagungarrian gertatutako igoera. Joera positibo horren arrazoiak hauek dira: IKTak gehiago erabiltzea, ongizate mentala, desgaitasunik gabeko bizi itxaropena, ariketa fisikoa eta 55 urtetik 64ra bitartekoek lan merkatuan parte-hartze handiagoa izatea. Ildo horretan, osasun portaerek eta Euskadin garatutako gizarte eta osasun kapitalak ahalmen handia ematen diote Erkidegoari, datozen urteetan zahartze aktiboaren maila handiagoa lortzeko.

Kontuan hartuta zer emaitza lortu diren, zahartze aktiboaren potentziala handitzen ari dela esan daiteke, azterlan honetan jorratutako denbora tarteko inguruabarrak gorabehera. Kalkuluetan erabilitako 22 adierazleetatik 12, 55 urteko eta gehiagoko pertsonen bizi baldintzei buruzko 2020ko inkestatik datoz, eta inkesta hori COVID19aren krisiaren testuinguruan egin zen. 2020an, etxetik kanpo edo bizikide ez diren pertsonekin egindako jarduera guztiei eragin zieten segurtasun murrizketak ezarri ziren, eta segurtasuneko murrizketak eta gomendioak enfasi handiagoz zuzendu zitzaizkien adinekoei. Beraz, litekeena da ezohiko egoera horrek adierazle batzuen balioan eragina izatea, 2., 3. eta 4. eremuetan, batez ere gizarteko parte-hartzeari eta osasunaren eta hortz-haginen zaintzari dagokienez. Inguruabar horiekin batera, beste alderdi batek ere eragina izan dezake emaitzetan, batez ere bigarren eremuan. Izan ere, lehen eta bigarren kalkuluen artean aldaketak egin dira Europako AAIko adierazle batzuen definizioan. Hala eta guztiz ere, ondorio batzuk tentuz hartu behar badira ere, esan daiteke balioek gora egin dutela, zertxobait, 2014tik 2020ra artean.

Laburbilduz, tresna honek hainbat dimentsiotatik ebaluatzen eta kuantifikatzen du adinekoen ekarpenaren garapena, ez bakarrik emaitzei dagokienez, baita zahartze aktibo eta osasuntsurako kapitalari dagokionez ere. Tresna hau aplikatuz eta konparaketak eginda lortutako emaitzak informazio iturri dira politika publikoak egiteaz arduratzen direnentzat, zahartze aktiboaren hainbat alderdi aztertzen dituzten adierazleetan zer hobekuntza egin daitezkeen eta zer aukera dauden jakiteko. Horren arabera, politika publikoen bidez zer alderdi bultzatuko diren erabaki daiteke. Indize hori aldian behin kalkulatu, gainera, aukera dago egindako aurrerapenak kuantifikatu eta monitoritzazeko, eta, horrela, jakiteko ea lurralde jakin batean zahartzen ari diren pertsonen potentzialak zer bilakaera izan duen gizarteari egindako

ekarpenari eta bizimodu independente, osasuntsu eta segurua izateko aukerari dagokienez. Gainera, abian jarritako politika publikoen eragina ebaluatzen laguntzen du.

Erreferentziak

- Del Barrio, E.; Sancho, M., eta Mayoral, O. (2015). *Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen bizi baldintzei buruzko ikerketa*, Eusko Jaurlaritza.
- Fernández-Ballesteros, R. eta Sánchez-Izquierdo, M. (2020). Impacto del COVID-19 en personas mayores en España: algunos resultados y reflexiones. *Clínica y Salud*, 31(3), Epub 2020-11-02. Doi: 10.5093/clysa2020a25.
- UNECE / Europako Batzordea (2015). *Active Ageing Index 2014: Analytical Report*, Asghar Zaidi (Centre for Research on Ageing), University of Southampton eta David Stantonen txostena, Nazio Batuen Europarako Batzorde Ekonomikoarekin (UNECE) (Geneva) kontratatuta, eta Europako Batzordearen Enplegu, Gizarte Gai eta Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusiaren (Brusela) finantzaketarekin.
- UNECE / Europako Batzordea (2019). *Active Ageing Index 2018: Analytical Report*, Giovanni Lamuraren eta Andrea Principiren txostena, Nazio Batuen Europarako Batzorde Ekonomikoarekin (UNECEekin) (Geneva) kontratatuta, eta Europako Batzordearen Enplegu, Gizarte Gai eta Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusiaren (Brusela) finantzaketarekin.
- Zaidi, A.; Gasior, K.; Hofmarcher, M.M.; Lelkes, O.; Marin, B.; Rodrigues, R.; Schmidt, A.; Vanhuysse, P., eta Zolyomi, E. (2013): *Active Ageing Index 2012: Concept, Methodology and Final Results*. EC/UNECE, Active Ageing Index Project, UNECD Grant ECE/GC/2012/003. European Centre for Social Welfare Policy and Research, Vienna.

